



## **Trebakuntza 2008/6: INFORMAZIO GARRANTZITSUA AURRERATU**

Udal idazki askotan esaldiko informazio garrantzitsuena atze-atzean uzten dugu, eta horrek esaldi nahaspilatsuak sortzen ditu. Nagusiki aditz deklaratioekin gertatzen zaigu hori: esan, adierazi, jakinarazi, ukatu, aitortu, egiaztatu, agindu, erabaki.... Hona hemen gaizki egindakoak zuzentzeko irizpide batzuk.

**OHARRA:** asteriskoz eta kurtsibaz idatzitako esaldiak ez dute zertan gaizki egon, baina badago esaldi horiek hobeto idazterik.

### **OHIKO AKATSAK**

1. *\*Dokumentazio guztia eskura izan arte ez dutela erabakirik hartuko adierazi dute.*
2. *\*Idatzi honen bidez, Ubide auzoan hogeitaz etxebizitza familia bakarrekoak eraikitze baimena eskatzen dizut.*
3. *\*Alkateak baimena emateari buruz eztabaidatzeko lekurik egokiena Hirigintza batzordea dela adierazi du.*
4. *\*Eskatzaileak Loiola auzoko Iturribide kaleko 5.A etxebizitzan bizi dela jakinarazi du.*
5. *\*Alkatea, kulturako zinegotzia, langileen ordezkaria, liburuzaina, IVAPeko ordezkaria eta idazkaria izango dira epaimahaikideak.*
6. *\*Bakarkako interesen ginetik arazoaren ikuspen globala defendatzea, langileriaren batasunaren aldeko lana, kalitatezko informazioa eta gauzak era demokratikoaren bitartez egitea, hauexek dira gure langaiak.*

Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea

[www.uema.org](http://www.uema.org)

Donibane enparantza 1, 1.a  
48380 Aulesti  
Bizkaia  
94-627.91.95  
[bizkaia1@uema.org](mailto:bizkaia1@uema.org)

Done Petri 14, behea  
20180 Oiartzun  
Gipuzkoa  
943-26.03.72  
[gipuzkoa2@uema.org](mailto:gipuzkoa2@uema.org)



## ZUZENKETAK ETA AZALPENA

Askotan, aditzak biltzen du informaziorik garrantzitsuena, eta irakurleari lehenbailehen ematea komeni da.

1. Ad. **Adierazi dute** dokumentazio guztia eskura izan arte ez dutela erabakirik hartuko.  
**Adierazi dute ez dutela** erabakirik hartuko dokumentazio guztia eskura izan arte.
2. Ad. Idatzi honen bidez, **baimena eskatzen dizut** Ubide auzoan hogeitazetxe bizi izan diren familia bakarrekoak eraikitzeko.
3. Ad. Alkateak **adierazi du** baimena emateari buruz eztabaidatzeko lekurik egokiena Hirigintza batzordea dela.  
Alkateak **adierazi du** Hirigintza batzordea **dela** lekurik egokiena baimena emateari buruz eztabaidatzeko.
4. Ad. Eskatzaileak **jakinarazi du** Loiola auzoko Iturribide kaleko 5.A etxebizitzan bizi dela.  
Eskatzaileak **jakinarazi du** Loiola **auzoAN bizi dela**, Iturribide kaleko 5.A etxebizitzan.  
  
> Kataforak (hauek, honako hauek...) eta zerrendak erabili.
5. Ad. **(Honako) hauek** izango dira epaimahaikideak:
  - Alkatea
  - Kulturako zinegotzia
  - Langileen ordezkaria
  - Liburuzaina
  - IVAPeko ordezkaria
  - Idazkaria**Hona hemen** epaimahaikideak: alkatea, kulturako zinegotzia, langileen ordezkaria, liburuzaina, IVAPeko ordezkaria eta idazkaria.
6. Ad. **Hauexek** dira gure langaiak:
  - Bakarkako interesen gaintik arazoaren ikuspen globala defendatzea
  - Langileriaren batasunaren aldeko lana egitea
  - Kalitatezko informazioa ematea
  - Gauzak era demokratikoaren bitartez egitea

Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea

[www.uema.org](http://www.uema.org)



**Hauexek/honako hauek** dira gure langaiak: bakarkako interesen ginetik arazoaren ikuspen globala defendatzea, langileriaren batasunaren aldeko lana egitea, kalitatezko informazioa ematea eta gauzak era demokratikoaren bitartez egitea.

**KONTUZ! Horrelako zerrendak ematean, ez erabili *\*hurrengo, \*ondoko* edo antzekorik. Forma zuzenak hauek dira: hona hemen, honako hauek...**

Azalpenotatik zerbait ulertu ez baduzu edo gehiago sakontzeko ariketarik nahi baduzu, jarri harremanetan UEMAko teknikariek:

- Telefonoz: 943260372 (Imanol) eta 946279195 (Iratxe)
- Posta elektronikoz: [gipuzkoa2@uema.org](mailto:gipuzkoa2@uema.org) (Imanol) eta [bizkaia1@uema.org](mailto:bizkaia1@uema.org) (Iratxe)

Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea

[www.uema.org](http://www.uema.org)

Donibane enparantza 1, 1.a  
48380 Aulesti  
Bizkaia  
94-627.91.95  
[bizkaia1@uema.org](mailto:bizkaia1@uema.org)

Done Petri 14, behea  
20180 Oiartzun  
Gipuzkoa  
943-26.03.72  
[gipuzkoa2@uema.org](mailto:gipuzkoa2@uema.org)